



MAIDER ZABALEGI

(Oiarzun, 1976) hiru disko argitaratu zituen Alaitz eta Maider bikotearekin (Alaitz eta Maider, -1997-, Inshala, -1999- eta Auskalo, -2002). Bakarka "Zuei" kaleratu zuen 2017an. Maider Zabalegiren bigarren diskoa (Bidean) Lezoti estudioan grabatu da 2018an. Grabaketa, ekoizpena eta argazkiak Gorka Urrak egin ditu. Moldaketak: Gorka Urria eta Urbil Artola. Nahasketak eta masterizazioa (2019an): Gorka Urria eta Beñat Igerabide (Hemen ez bada, han -hitzak). Diseinua: Zirritu. Diskoak laguntzaileak hauek izan ditu: Joseba Loinaz (pianoak, -Min bizi eta Akotz), Iñigo Asensioa (hammond, -Zirrara, Agurra eta Hemen ez bada, han), Peio Gorrotxategi (hammond, -Akotz), Beñat Igerabide (ahotsa, -Hemen ez bada, han), Matthieu Haranboure (baxua, -Hemen ez bada, han), Xabi Solano (soinu txikia, -Soinu txikia), Cristina Vertiz (biolinak, -Akotz), Orkaitz Arbelaitz (biolontxelo, -Akotz). Maider Zabalegi talde sendoa kudeatu du, ondoan izango ditu Gorka Urria, Urbil Artola, Maria Soriazu, Karlos Aranzegi eta Santi Romano.

Maider Zabalegi kantariak bigarren diskoari "Bidean" izenburua eman dio. Orain arte "Maider" izen soilarekin sinatu izan du musika ibilbidea, baina 2019tik aurrera Maider Zabalegi izango da izen artistikoa. Maider Zabalegi dio bizitza bidaia bat dela, ez dakiela noiz hasiko den eta ezta noiz bukatuko den. "Bidaia" diskoari beste horrenbeste gertatzen zaio. Agian uste dugu kantuaren hasiera eta bukaerekin dena bukatzen dela, baina Maider Zabalegiren kantuek harrapatzen gaituzte, ez dute ez hasiera ez bukaerarik, continuum bat eraiki arte entzulearen buruan. Baditu kantuak pop-rock euskarrian, baladak, amerikar folka eta rocka, countrya, kantu pausatua eta arinak, alaiak eta sentikorrak. Bizitza izugarria bada, izutzeko moduko kantuak egin ditu Maider Zabalegi. Baina izugarriak, egundokoak, alimalekoak. Laburtuz, diskoak ilusioa barreiatu eta txertatu nahi dio entzulari. Besterik gabe eta erraz esan gabe.

LANBROTUTA

Azken boladan sarri nago aitona-amonekin, eta beraiekin igarotzen ditudan uneak ditut kontari abestian, oroimena galdu ondoren elkarri nola begiratzen dioten, zein diren bere baitan dabiltzan pentsamenduak, bizitzaren trena bidaiaren amaierara iristen ari den horretan. Britaniako rock eta poparen nahasketa. Pianoa, gitarra elektrikoa eta gitarra akustikoa uztartzen direnean sortu daitekeen energia ederki ikusten da.

AGURRA

Bizitzan maiz errepikatzen zaigu maite dugun norbaiti agur esan beharra. Eta, berriz ere, bizitza geratzen zaigu bizi garenontzat; eta oraingoan ere ilusioz bete beharko gaituena. Dobroaren melodiak, gitarra elektrikoaren efektuen babesean, balada antzera hasi eta segituan indarra hartzen doa.

AKOTZ

Baina bizitza krudela ere bada, zer esanik ez ohean mugitu ezinik dagoen batentzako. Lapurdiko Donibane Lohitzuneko auzoa da Akotze. Bizitzako opari politenetakoa, maitemintzea da. Instrumentu modernoak eta klasikoak nahastu ditugu "in crescendo" moduan. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren ukituak ditu (Cristina Vertiz-ek kantuan biolina jo du eta Orkestrako biolin-jotzailea da), eta pelikuletako amaieretan bezala, bukaera apoteosikoa du kantuak.

SOINU TXIKIA

Gure gorputzean arrotz sentitzearen inguruan. Ipar Ameriketako folk kantautoreen kutsua sumatu daiteke abestiaren armonian zein gitarra akustikoen fingerpicking eta dobroaren konponketetan.

BIDEZIDORREAN

Gustukoak ditut, baina maiz, ez da ikusten biderik. Berriz ere urtaroen eta bizitzaren pozek. Kurt Cobain-ek Nanci Griffith haurdu utzi izan balu, horrelako abestia erditzeko aukera izango zukeen.

ZIRRARA

Zirrarez betetzen nau bizitzak. Bizitzaren motarra, poza, ilusioa. Rock amerikarra, disco ukitu batzuekin, Euskal Herriko perrexil saltsan nahastutako doinuak.

HAUR MOTXILADUNEI

Neu ere motxiladuna izan nintzeneko oroimenak datozkit burura, norbere herria uztera behartutako hainbat eta hainbat pertsonekin bat egiten dut pentsatuz eta esperantzari eutsiz. Haurrek gehien maite dituztenak ikusteko bizi beharreko injustizia, distantzia... Folk eta countryaren nahasketa rockabilly zertzeladekin.

HEMEN EZ BADA, HAN

Errefuxiatuak, dena uztera behartuak, bere herria, ama, aita.... Ziurrenik askok identifikatuko dute abesti honetan gitarra akustikoarekin The Extreme talde famatuari egindako omenaldi zuzena, nahiz eta erreferentzia horretaz gaindi, kantuak beste inongo antzekotasunik ez eduki.

MIN BIZI

Minak sortzen dizkigun bizipenetatik ikasi eta bizi, eta berriz ere bidaia zoragarri honi ekin. 30eko hamarkadan Ipar Ameriketako jate txetxe batean girotuta dagoela senti dezakegu, isats-piano bat eta zortedun gutxi batzuk bakarrik gozatu ahal izango luketen ahots soila.

Maider Zabalegi: abestiak, letrak, ahotsa

Gorka Urria: gitarra elektrikoa, gitarra akustikoa, koroak eta perkusioak

Urbil Artola: dobroa, lap steel, gitarra akustikoa, koroak

Maria Soriazu: baxua eta koroak

Karlos Aranzegi: bateria eta perkusioak

Santi Romano: pianoa, teklatura, koroak

ritxi aizpuru + maider zabalegi + gorka urria (2019ko otsailaren 21ean)